



## GOBERNU BATZARRA

2024.12.23

**Alkatea:**  
**Angel Martinez de Rituerto Arregi**

**Bertaratutako zinegotziak:**  
**Kristina Pelaez Errazkin**  
**Ander Figuerido Zubiria**  
**Aitor Agirresarobe Murgi**

Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita lauko abenduaren hogeita hiruan, 13:00etan, lehenengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:

**Ez dira bertaratu:**  
**Estitxu Kortejarena Ugarte**  
**Goiuri Ezeiza Arandia**

**Idazkaria:**  
**Begoña Garmendia Vazquez**

**Kontu-hartzaile akzidentala:**  
**Paulino Alonso Eraso**

1. Akta hau onartzea: 2024ko abenduaren 17koa.
2. Onartzea eta indarrean sartzea, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera, 2025 urterako udaltzaingoarene egutegia.
3. Onartzea Tolosako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko hitzarmenaren luzapenerako proposamena.

### **1. AKTA HAU ONARTZEA: 2024KO ABENDUAREN 17KOA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute.

Aho batez onartu dute.

### **2. ONARTZEA ETA INDARREAN SARTZEA, 2025EKO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA, 2025 URTERAKO UDALTZAINGOAREN EGUTEGIA.**

Udaltzaingoko sailak 2025 urterako Udaltzaingoko egutegia aurkeztu du; bertan, iaz egutegian aldaketa nagusi bezala lantaldeak 4 kidekoak izan beharrean (agente lehena gehi hiru udaltzain), hiru kidekoak izatea onartu zen eta aurten ere proposamen berbera mantentzen da. Egutegi honekin goiz eta arratsaldeko txandak agente kopuru gehiagorekin egotea da helburua.



Hori horrela, hauxe da proposatzen den egutegia:

**Lehena.-** Lan txandei dagokionez bi aldaketa nagusi proposatu dira;

- Batetik, orain arte goiz, arratsalde eta gaueko lan txandan lan egiten zuten dotazioak hiru udaltzainez osatuak egongo dira (agente lehena gehi bi udaltzain).

- Bestetik, seigarren taldean goiz eta arratsaldeko eta asteburuetako lan-txanda sistema mantenduko da.

**Bigarrena.-** Lanpostu zerrendan aldaketa bat egin da eta "irratiko egutegi" lanpostua, "Udaltzain G/A" lanpostuan bihurtuko da eta seigarren lan txandako sistemara pasako da.

**Hirugarrena.-** Udaltzainen egutegiarekin batera doan testua ere onartu eta berritu da.

**Laugarrena.-** Ordezkaritza sindikalarekin negoziazioa

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 37.1 artikulua (m) atalean xedaturikoaren arabera, besteen artean, giza baliabideetako egutegiak eta ordutegiak pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan, eta legez dagokion hedaduraz.

Zentzu honetan, ERNE eta LABeko udaltzaingoko ordezkari sindikalekin honako bilerak burutu dira:

**1.-** 2024ko azaroaren 27an, udaltzaingoko LAB eta ERNEko ordezkari sindikalei 2025eko egutegian txertatuko ziren aldaketaren berri eman zen. Zentzu honetan honako akordioetara heldu ziren:

- Lan txandatan sortzen diren hutsuneak betetzeko zerrenda bat egitea proposatu zen, eta horrela ordezkariak egiteko errentasun handiagoa izango duela adierazi du. Zerrenda hau borondatezkoa izango litzateke. Ados agertu dira proposamen honekin.
- Gutxieneko zerbitzuen kasuan, egunez bi aldean adostasunez, bost agenteetatik lau agenteetara jaitea adostu da eta gaueko txanda bi udaltzain mantentzea, gutzia udaltzain buruzagitzak finkatutako irizpideen baitan.
- Azoka berezien eta hainbat emanaldien gutxieneko zerbitzuetaz hitzegitean, egun horiek zehaztu dira, hain zuzen ere: urte berri eguna (goiza soilik), Errege bezpera eta eguna (48 ordu), Tolosako iñauteriak (osteguna, ostirala, larunbata, igandea, astelehena, asteartea, asteazkena), Haragi azkoa (goiza soilik), Tolosako san joanak



eta kuadrila eguna (kuadrila eguneko larunbata eta ekainaren 20tik-24 bitarte), Donostiako klasikoa kirol proba (goiza soilik), Garagardo festa (24 ordu), Berazubiko jaiak eta San Estebaneko krosa (48 ordu), Tolosa goxua peria (goiza soilik), Domu santu asteburua (48 ordu), Babarrun azoka (24 ordu) eta gabonetako azoka (goiza soilik).

- Bestetik, abenduaren 25ean, urtarrilaren 1ean eta urtarrilaren 6an gutxieneko zerbitzuak jartzea adostu da, izan ere orain arte egun horietan ezin zen opor zein lizentzi egunik hartu.

**2.-** Baita ere 2024ko abenduaren 4an, beste bilera izan dute, eta honako akordioetara heldu ziren:

- Formazioa: udaleko formazio planaren barnean, plangintza bat diseinatuko da; udaltzainburuak proposamen egingo du eta gero ordezkari sindikalekin negoziatuko da. Euskararen formakuntzari dagokionean, euskara ikastera joateko baimena emango da, beti ere zerbitzuaren beharrak bermatuta.
- Lanpostu zerrenda handitzeari buruz, Alkateak adierazi zuen urtean zehar aztertuko duela ea ze aukera ikusten diren plantilla handitzeko baina udalaren behar guztiak bere osotasunean aztertu behar zirela.

**3.-** 2024ko abenduaren 10ean, udaltzainek asanblada izan zuten eta udaltzain plantillaren gehiengoak egutegiaren kontra bozkatu zuten eta egutegia onartzeko proposamena ez onartzearen alde azaldu ziren.

**4.-** Baita ere, 2024ko abenduaren 13an, beste bilera egin zen ordezkari sindikalekin eta, Alkateak testu berriaren proposamena luzatu eta hainbat aldaketen berri eman zuen, honako adostasunetara iritsiaz:

- Oporren inguruan, aldaketa proposatu eta horrela geratu zen:  
"3.2.- Oporrak

*Oporrak eskatzerakoan zerbitzu minimoak betetzeko gatazkarik balego, lehenetsuna emango zaio pasa den urtean data hauetan hartu ez zuenari. Biak hartu baldin bazuten, interesatuen artean zozketa egingo da.*

*Hiru txandatan lan egiten dutenek ezin izango dituzte bi txanda berdina baino gehiago hartu urtean zehar. 7 eguneko goizeko eta gaueko txanda bana eta 5 eguneko arratsaldeko txanda bat.*

*Bi txandatan lan egiten dutenek 7 eguneko aste bat eta 5 eguneko aste bat hartu beharko dute gutxienez.*

*Gainontzeko udaltzainek udalean indarrean dagoen hitzarmenaren arabera hartuko dituzte. Langile bakoitzak apirilaren 30 baino lehenago jakinarazi behar du oporraldia noiz hartuko duen. Geroago eskatutakoak emango dira baldin eta gutxieneko zerbitzuak bermatuta gelditzen badira."*



- Baita abenduaren 25a, urtarrilaren 1 eta 6an, zerbitzu minimoak bermatuta badaude, oporrak eskatu ahal izango dira.
- Soberako orduen kasuan, testua horrela adostu zen:

*“Lehen hilabeteetan pilatutako orduak ekainaren 30a baino lehen erabili beharko dira. Hortik aurrera pilatutako orduengatik baimenak 30 egun baino lehen egin beharko dira. Eragozpenik badago horrela egiteko, eta salbuespenez, beste 30 egunetan luzatuko da egiteko aukera.*

*Tartean beste egoera berezirik suertatuko balitz (gaixotasuna, oporrak edo antzeko zerbait) lanera bueltatzean hasiko dira kontatzen egunak.”*

Dena den, nahiz eta hobekuntza guzti hauek adostu, 2025 urterako udaltzaingoaren egutegia onartzeko ordezkari sindikalek adierazi zuten ez dagoela adostasunik. Bilera honekin negoziazio sektorialak amaitutzat eman ziren.

- Azkenik, udaleko Negoziazio mahaian ere 2024ko abenduaren 18an negoziatu zen egutegia eta bi aldeek arteko adostasunik gabe onartu zen.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**Lehenik.-** 2025ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2025 urterako udaltzaingoaren egutegia onartzea eta indarrean sartzea, dokumentu honi eranstean zaizkion egutegiarekin batera doan ondoko testua ere onartuaz:

### **“2025 URTERAKO UDALTZAINGOAREN INSTRUKZIO OSAGARRIA**

#### **1.- Sarrera**

*Tolosako udaleko udaltzaingoko plantilla 31+2 langileez osatua dago. Langile hauek osatzen duten egitura funtzionala honelaxe dago definituta:*

- *Hamabost (15) agenteek 3 erreleboetako 5 lan-talde osatzen dituzte, errelebo bakoitzean agente lehen bat dagoelarik.*
- *Hamaika Agenteek osatzen du 6. lan-taldea, goizeko eta arratsaldeko errelebotan banaturik. Goizeko astean larunbatetan eta igandeetan lanaldia burututa 12 ordu-etara. Honako funtzioak betetzen dituzte:*

- *Hamabost (15), 3. erreleboetako agenteak dira.*



- Hamaika, 6. taldeko agenteak dira.
- Trafiko koordinatzaile bat.
- Bi, agente administrariak dira.
- Bi udaltzain laguntzaile (seinalizazioa eta jakinarazpenak).
- Ofizialorde bat (1).
- Ofizial bat (1).

-----

Lan egutegia planifikatu da irizpide hauek kontuan hartuz:

- Urteko ordu kopurua..... 1.592.
- Oporretarako ordu kopurua...: 168
- Lan egutegian planifikatutako orduak .....: 1.760

## **2.- Lan txandak**

### **A) Zuzendaritza:**

Ofizial eta Ofizial ordeak goizez beteko dute bere lan jarduna eta zerbitzu beharraren arabera arratsaldez, gauez edo asteburuetan deituak izango dira.

### **B) Administrari agenteak**

Goizez egingo dute lana, zazpi orduko lanaldietan, astelehenetik ostiralera:

- Oporretan eta zubietan: Solapatu egingo dira beti bat lanean egoteko.

Lau asteko lan-zikloak

Administrariak

L	M	X	J	V	S	D	L	M	X	J	V	S	D	L	M	X	J	V	S	D	L	M	X	J	V	S	D
M	M	M	M	M			M	M	M	M	M			M	M	M	M	M			M	M	M	M	M		

### **C) Udaltzain laguntzaileak**

Goizez edo/eta arratsaldez egingo dute lana, zazpi orduko lanaldietan, astelehenetik ostiralera:



- Oporretan eta zubietan: Solapatu egingo dira beti bat lanean egoteko.

Lau asteko lan-zikloak

Udaltzain laguntzaileak

L	M	X	J	V	S	D	L	M	X	J	V	S	D	L	M	X	J	V	S	D	L	M	X	J	V	S	D
M	M	M	M	M			M	M	M	M	M			M	M	M	M	M			M	M	M	M	M		

D) Bi txandatako langileak (6. Taldea).

- **Goizez:** Astelehenetik ostiralera. Laneguna zortzi ordukoa izango da. 06:00etan sartuko dira eta 14:00etan aterako dira. Asteburuan, hamabi (12) ordu egingo dituzte lan larunbatean eta beste hamabi (12) igandean. 06:00etan sartuko dira eta 18:00etan aterako dira. Hurrengo astean atsedena izango du.
- **Arratsaldez:** Astelehenetik ostiralera egingo dute lan. 14:00etan sartu eta 22:00etan atera.

E) Hiru txandatako langileak:

- Ordutegiaren sekuentziak:

- **Goizez:** Astelehenetik ostiralera. Laneguna zortzi ordukoa izango da. 06:00etan sartuko dira eta 14:00etan aterako dira. Asteburuan, hamabi (12) ordu egingo dituzte lan larunbatean eta beste hamabi (12) igandean. 06:00etan sartuko dira eta 18:00etan aterako dira. Hurrengo astean atsedena izango dute.
- **Arratsaldez:** Astelehenetik ostiralera, zortzi (8) orduko laneguna izango da. 14:00etan sartu eta 22:00etan atera. Asteburuan jai.
- **Gauetz:** Astelehenetik ostiralera, zortzi (8) orduko laneguna izango da. 22:00etan sartuko dira eta 06:00etan aterako dira. Asteburuan hamabi (12) ordu lan egingo dute larunbatean eta beste hamabi (12) igandean. 18:00tan sartuko dira eta 06:00tan aterako dira. Hurrengo astean atsedena izango du.

- ❖ Egutegi hau ez da finkoa izango. Zerbitzuaren beharren arabera egutegi hau alda daiteke beti ere hilabete bateko epearekin jakinarazita. Urte osoan sartu behar diren orduak betetzen ez badira, egun gehigarriak ezarriko dira.

F) Gutxieneko zerbitzuak:

Bi taldeen artean 4 agente

\* Egoera justifikatuetan eta salbuespenez, Udaltzainburuak aurreko bi taldeetako gutxienekoa 4koa beharrean, 3koa izatea erabaki dezake.

\*Administrariak: langile bat.

ESKUDA512ee9-0675-469f-86bd-9233a019d4cd



*\*Gauetz: 2 agente.*

*Ondorengo zerrendako egunetan, hiru txandatako talde osoa eta 6. taldeko partaide denak lanerako prest egongo dira. Kasu hauetan, gutxieneko zerbitzu hauek ezingo dira arau gisa hartu. Egun hauek egutegian morez azaltzen dira.*

*Abenduak 24*

*Abenduak 25: zerbitzu minimoak bermatuta (4 agente).*

*Urte berri eguneko goiza: zerbitzu minimoak bermatuta (4 agente).*

*Errege bezpera.*

*Errege eguna: zerbitzu minimoak bermatuta (4 agente).*

*Tolosako iñauteriak (osteguna, ostirala, larunbata, igandea, astelehena, asteartea, asteazkena)*

*Haragi azoka (goiza soilik)*

*Tolosako san joanak eta koadrila eguna (koadrila eguneko larunbata eta ekainaren 20tik-24 bitarte)*

*Donostiako klasikoa kirol proba (goiza soilik)*

*Garagardo festa (24 ordu)*

*Berazubiko jaiak eta San Estebaneko krosa (48 ordu)*

*Tolosa goxua azoka (goiza soilik)*

*Domu santu asteburua (48 ordu)*

*Babarrun azoka (24 ordu)*

*Gabonetako azoka (goiza soilik)*

*Gutxieneko zerbitzu hauek, derrigorrez, udaltzainen plantilla 31+2 agenteekin osatua egon behar du.*

*G) Txanden arteko solapeak.*

*Agente lehenak 15 minutu lehenago sartuko dira txanda antolatzeke eta irtetzen den agente lehenarekin koordinatzeko.*

*H) Ordezkapenak buruzagitzan*

*Ofiziala eta ofizial ordeak beraien artean ordezkatuko dira eta biak batera falta badira, iraupen motzeko epealdiak badira, Alkatetzak edo Antolakuntzako zinegotzi delegatuak erabakiko du ordezkapena noiztik hasiko den. Dena den, iraupen luzeko baja baten ondorioz edota plaza hutsik geratzen delako, ordezkapena derrigorrez egingo da. Azken kasu honetan, ordezkapen sistema bat adostuko da ordezkarikarekin.*

*I) Agente lehenak ordezkatzeke lehenatasuna karrerako funtzionarioak izango dute. Hauen artean antzinatean handiena duenak lehenatasuna izango du. Karrerako funtzionarioak ez balego antzinatean ezarriko du lehenatasuna.*

*Goizeko txandan agente lehena faltako balitz, buruzagitzak beteko du hutsune hori.*



### **3.- Opor, lizentzi, baimen eta antzinatasun egunak**

#### **3.1.- Neurri orokorrak**

Orokorrean ezin izango da inongo egunik hartu ez oporreatatik, ez antzinatasunetatik, ezta beste lizentziatikat ere, aipatutako egunetan (morez daude egutegian).

*Baimenak honako lehentasun hauen arabera emango dira:*

- *Norberaren edo familiarateko gaixotasunetatik dagokion lizentzia*
- *Oporrak*
- *Norberaren gauzetatik*
- *Antzinatasunetatik.*
- *Baimenak*
- *Pilatutako orduetatik*

#### **3.2.- Oporrak**

*Oporrak eskatzerakoan zerbitzu minimoak betetzeko gatazkarik balego, lehentasuna emango zaio pasa den urtean data hauetan hartu ez zuenari. Biak hartu baldin bazuten, interesatuen artean zozketa egingo da.*

*Hiru txandatan lan egiten dutenek ezin izango dituzte bi txanda berdin baino gehiago hartu urtean zehar. 7 eguneko goizeko eta gaueko txanda bana eta 5 eguneko arratsaldeko txanda bat.*

*Bi txandatan lan egiten dutenek 7 eguneko aste bat eta 5 eguneko aste bat hartu beharko dute gutxienez.*

*Gainontzeko udaltzainek udalean indarrean dagoen hitzarmenaren arabera hartuko dituzte. Langile bakoitzak apirilaren 30 baino lehenago jakinarazi behar du oporraldia noiz hartuko duen. Geroago eskatutakoak emango dira baldin eta gutxienerako zerbitzuak bermatuta gelditzen badira.*

#### **3.3.- Soberako orduak**

*Lehen hilabeteetan pilatutako orduak ekainaren 30a baino lehen erabili beharko dira. Hortik aurrera pilatutako orduetatik baimenak 30 egun baino lehen egin beharko dira. Eragozpenik badago horrela egiteko, eta salbuespenez, beste 30 egunetan luzatuko da egiteko aukera.*





*Tartean beste egoera berezirik suertatuko balitz (gaixotasuna, oporrak edo antzeko zerbait) lanera bueltatzean hasiko dira kontatzen egunak.*

### **3.4.- Orduak faltan**

*Egutegia 1592 ordutara dago egokituta. Orduak faltako balira, horiek noiz bete markatuko da, langilearekin adostuta, 30 egun lehenago.*

### **3.5.- Norbere gaietarako eta antzinasun egunak**

*12 orduko egunak NG egun bat eta erdi bezala zenbatuko dira (12 ordu).*

*Bakoitzari dagozkion egunen erdiak ekainaren 30erako egin behar dira eta besteak abenduaren 31a baino lehen, beti ere kontutan hartuta 3.1. puntuari ezarritako neurri orokorrak.*

### **3.6.- Aparteko orduen banaketa:**

*Udaltzain guztiek egin ditzakete. Horretarako, borondatez aurkeztutako udaltzainen **zerrenda bat egingo da**. Zerrenda honekin erreten bat egingo da. Zerrenda osatuko dutenekin adostuko da antolamendua.*

*\*Ordu hauen konpentsaziorako Udaltz hitzarmena jarraituko da. Aparteko orduak denboran konpentsatuko dira. Gutxieneko zerbitzuak bermatzeko arazoak baleude, soilik eta salbuespenez, ordainduko dira dirutan.*

## **4.- Iñauteri eta San Juan egunak**

*Data hauek bermatzeko, Udaltzainburuzagitzak ezarriko ditu urte hasieran egongo diren errefortzuak urteko egutegiaren barruan.*

*Egun hauetan jai duten udaltzain guztiek udaltzain buruaren esanetara egon beharko dute, zerbitzu beharren arabera lanera etorri beharko dutelarik.*

## **5.- Zikloen aldaketak eta konpentsazioak:**

*Honako egoerak eman daitezke:*

- **LANALDIAREN LUZAPENA:** eguneko lanaldiaren luzapena suertatu daiteke zerbitzuaren **ez-ohiko** egoera baten aurrean. Kasu honetan, udaltzek ezartzen duen konpentsazioa aplikatuko da.
- **EZ-OHIKO ALDAKETAK:** 6 taldetik (Goiz eta Arratsalde) erreleboetako 3 taldera (Goizez, Arratsalde eta Gauez). Ez-ohiko aldaketak direnean, udaltzek ezartzen dituen konpentsazioak emango dira.  
*Salbuespenez, 6 taldeko hainbat agenteei gau batzuk aurreikusi zaizkie programatutako egutegian. Kasu hauetan aldaketa hauek lanpostuen balorazioan islatuak ez daudenez, bertan jatorrizko lanpostuen eta beteko den lanpostuaren artean berriazko osagarrian dagoen aldea ordainduko da.*



*Goiz eta arratsaldeko txandetan aldaketak ematen badira, goizetik arratsaldera edo arratsaldetik goizera, beti udaltzainarekin adostuta izango da. Hau 3.6. puntuan jasotzen den bezala egingo da.*

- **ASTEBURUETAKO ORDEZKAPENAK:** *aurreko parrafoan ezarritako sistema berbera aplikatuko da.*

*Kasu guzti hauetan, Tolosako Udalak egun indarrean duen barne funtzionamendurako zerbitzu instrukzioan dioenaren arabera aplikatuko dira konpentsazioari dagokionean, hau da, ez-ohizko orduen kasuetan egutegian aurreikusiak ez daudelako, dagokion atsedenen bidez konpentsatuko da Udaltz aplikatuz.*

#### **6.- Urteko egutegia bete gabe orduak faltan**

*Urtea bukatzean norbaitek ez baditu hitzarmenak markatzen dituen 1592 orduak egin, hurrengo urtean bete beharko ditu udaltzain buruak markatutakoaren arabera.*

#### **7.- Interpretazio zalantzak**

*Interpretazio arazorik gertatuko balira, Alkateak edota antolakuntzako zinegotzi delegatuak ebatziko du, behin ordezkari sindikalak entzun ondoren.*

#### **8.- Iraupena**

*Urte bete.”*

**Bigarrena.-** Akordio hau Udaltzain buruari eta ordezkari sindikalei jakinaraztea.



### **3. ONARTZEA TOLOSAKO UDALA ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKO ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO HITZARMENAREN LUZAPENERAKO PROPOSAMENA.**

#### **IKUSIRIK:**

**Lehen.**- 2024ko abenduaren 13ko datarekin eskaera erregistratu du Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zainketetako eta Gizarte Politiketako Departamentuak 2024-15546 erregistro zenbakiarekin, honakoarekin:

<<Se os hace llegar, en formato PDF, el Acuerdo de Consejo de Gobierno Foral de fecha 10 de diciembre, por el que se aprueba la extensión de los efectos económicos del Convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y cada uno de los ayuntamientos de Gipuzkoa para la financiación del Servicio de Ayuda a Domicilio.>>

Era berean, honako azalpenarekin ofizioa erantsi zen erregistro horretan:

<<Diputatuen Kontseiluak abenduaren 10ean hartutako Erabakiaren kopia helarazten zai-zue, PDF formatuan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udal bakoitzaren artean etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko lankidetzaren ondorio ekonomikoak zabaltzea onartzen duena.

Honekin batera, sinatu beharreko Word formatuko artxiboa erantsi da, udal eta mankomunitate bakoitzak egokitu dezaten. Honela bete behar da:

- 1.- Goiburuan armarrria erantsi (orriaren eskuineko goialdean eta orrialde guztietan)
- 2.- Eskumena duen udal organo bakoitzak hitzarmena onartu duen data (Udalbatzaren osoko bilkura...).
- 3.- Hitzarmena sinatzen duen pertsonaren izena eta kargua (alkate jaun/andrea, Mankomunitateko lehendakaria).

Hitzarmenaren ondorio ekonomikoak zabaltzea, udal-organoen eskudunak onartu eta dokumentua sinadura elektronikoaren bidez formalizatu ondoren, SIR sistemaren bidez, Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentura, Etxeko Laguntzen Atalera bidali behar duzue.

Hori guztia ahalik eta azkarren egin behar da, **2024ko abenduaren 31 bidali beharko baita aurretik zehaztutako agiriak.**

Edozein zalantza argitzeko: Ione Iguaran. [jiguaran@gipuzkoa.eus](mailto:jiguaran@gipuzkoa.eus) 943-112667

OHARRA: Arren eskatzen diegu udaletako gizarte zerbitzuetako arduradunei, helarazteko dokumentazio hau erabakia hartu behar duen organoko idazkariari eta kargu era erakunde publikoei, dagokien prozedura izapidetu dezaten.>>

**Bigarrena.**- Luzapena formalizatzeko honako ereduak proposatzen du aipatu erakundeak:



## KONTUAN HARTURIK

- *Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailaren txosten teknikoan honakoa nabarmendu da:*

**Lehena.-** Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 legean eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 1875/2015 dekretuan xedatutakoaren arabera, Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzua udal-eskumenekoa zerbitzua da.

2017 urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiako Gizarte Politiketako Departamentuak eta EUDEL erakundeak lankidetzan hitzarmenerako proposamen bat prestatu zuten, non finantziario sistema berri bat ezartzen baitzen eta zenbait hobekuntza sartu baitziren zerbitzuaren eskaintzan, hala nola, zerbitzuaren iraupena eta intentsitatea handitzea, erabiltzaileen koordinketa txikiagotzea, eta zerbitzua mendekoen kalifikazioa ez zutenengana zabaltzea.

Ondorioz, 2018ko martxoaren 20an hartutako erabakiaren bidez onartu zuen Diputatuen Kontseiluak mendekotasuna duten pertsonentzako Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalekin sinatu beharreko hitzarmen eredia, eta, era berean, 2018ko uztailaren 26ko Ohiko Osoko Bilkuran onartu zuen Tolosako Udalak hitzarmen hori: 2018IHTP0001

**Bigarrena.-** 2021eko abenduaren 17an erregistratu zuen Gizarte Politiketako Departamentuak Tolosako Udaleko erregistro orokorrean, 11077 zenbakiarekin, iraungita dagoen hitzarmen hori berritzeko proposamena.

Proposamen horri dagokion udal espedientea izapidetu zuen, 2022IHTP0003, eta ondorioz, Tolosako Gobernu batzarrak, 2022ko maiatzaren 31n ospatutako saioan erabaki zuen:

<Onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Tolosako Udalaren arteko hitzarmena, etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzekoa.>

Horiek horrela, 2022-1827 zenbakiarekin erregistratu zen hitzarmen hori sinatuta, 2022ko ekainaren 17ko datarekin. Hauexek dira hitzarmen horretan jasotako klausulak:

### <<LEHEN. – Helburua.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta **Tolosako Udalak** sinatutako hitzarmen honen xedea da udalerrian mendekoen kalifikazioa dutenei eta arreta jaso behar duten beste kolektibo batzuei emandako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako baldintzak definitzea, Erakunde arteko Mahaiak aldeztu aurretik adostuta.

### **BIGARREN.-. Eskumena.**

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 legearen, 42.4 artikularen arabera, zerbitzu hori udalen eskumen-eremuan ematen da, administrazio hartzaile gisa; aldiz, 41.3 artikularen arabera, lehen zerbitzuaren kudeatzaile ziren foru-aldundiei –beste batzuk esleitzen zaizkie eskusiboki, udalerrri batzuek zituzytenak, hala nola mendetasun-egoeran dauden adinekoentzako egoitzak eta eguneko zentroak.



Eskumen-birbanaketa horren ondorioz, aipatutako legearen hirugarren xedapen iragankorrear, hiru euskal administrazio publikoen arteko finantza-berregokitzea aurreikusten da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa hornitzeko finantza-nahikotasuna bermatzeko.

Beste mekanismorik ezean, ELZren baterako finantzaketarako lankidetzaz hitzarmen honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta lurraldeko udalen arteko finantza-egokitzapenean laguntzen du, abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearekin bat etorritik.

### **HIRUGARREN.- Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartutako konpromiso ekonomikoak.**

Hitzarmen honen seigarren klausulan adierazitakoaren ondorioetarako, Gipuzkoako udalerrri guztietarako urteko gehieneko foru-finantzazioa 8.192.461 eurokoa izango da. Hiruhileroko ekarpena urtekoaren % 25a izango da. Horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiak 18.433.037,25 euro finantzatu ditu guztira, eta honela banatu ditu udalentzako eta mankomunitateentzako partidak:

1.0810.110.461.01.10-2021	2.020.107,00 €.
1.0810.110.461.06.03-2021	28.008,25 €

5.0810.110.461.01.10-2022	8.070.821,00 €.
5.0810.110.461.06.03-2022	121.640,00 €

5.0810.110.461.01.10-2023	8.070.821,00 €.
5.0810.110.461.06.03-2023	121.640,00 €

Adierazitako zenbatekoek foru-ekarpenaren gehieneko zenbatekoa ezartzen dute, eta bi partiden artean alda daitezke, udalerrri bakoitzetarako zifra errealean arabera, baina bi partiden baturaren emaitza beti izango da foru-ekarpenaren gehieneko zenbatekoaren berdina, eta, beraz, ez da aldatuko zerbitzuaren jarduerak hazkundera izan arren.

### **LAUGARREN.- Udalak bere gain hartutako konpromisoak.**

Udalak Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen udal erregelamendua egokitu beharko du abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen eskumen banaketara.

Udalak emandako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren ordu bakoitzeko gehieneko tarifaren kopurua oinarritzat hartuko da seigarren klausulan araututako foru finantzaketa zehazteko, zehazki hauek:

- Ordu bakoitzeko asteguneko tarifa: 18,87 €
- Ordu bakoitzeko igande eta jaiegunetarako tarifa: 22,66 €

Zerbitzuaren orduko prezioa gehieneko tarifa baino txikiago balitz, foru-ekarpenaren kalkulua egiteko erreferentziatzat hartuko da 2022. urterako udalean 2022ko urtarrilaren 1ean indarrean dagoen orduko prezioaren kopurua, 2023ko urtarrilaren 1ean dagoena 2023. urterako eta urtarrilaren 1ean dagokion urterako, hitzarmen honen indarraldia luzatzen bada. Udalerrri bakoitzean foru-finantzaketa gainditzen duen gastua udalak edo mankomunitateak hartuko du bere gain.



**BOSGARREN.- Aldeek bere gain hartutako konpromisoak eta baldintzak ez betetzearen ondorioak.**

Hitzarmen hau sinatu duten alderdiek hartutako konpromisoen ez-betetzeak bederatzigarren klausulan araututako Jarraipen batzordeari alegatuko zaizkio. Batzorde horrek aztertu, mailakatu eta erabakiko ditu hartu beharreko ondorioak eta neurriak.

**SEIGARREN.- Foru finantzaketa.**

Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion zerbitzu finantzaketa zehazteko, kontuan hartuko dira aldagai hauek:

**a) Hiruhileroko fakturazioa:**

Eskaintako zerbitzuen ordu kopurua laugarren klausulan adierazitako zerbitzuaren tarifaz biderkatu ondoren ateratzen den emaitza izango da.

**a) Koordainketa:**

Erabiltzaileek egindako ekarpenen batura da.

**c) Aldundiaren ekarpen teorikoa:**

Zenbateko hori a) atalean adierazitako hiruhileroko fakturazioaren eta b) atalean adierazitako erabiltzaileen koordainketaren arteko diferentzia da.

**d) Aldundiaren ekarpen teorikoa aurrekontura egokituta:**

Udalerrri guztien foru-ekarpen teorikoei koefiziente murriztaile bera aplikatzearen emaitza da, ekarpen horien batura hirugarren klausulan definitutako hiruhileko guztizko ekarpena baino handiagoa bada.

Koefiziente hori zatiketa honen emaitza izango da: Aldundiaren hiruhileroko gehieneko ekarpena, aurreko paragrafoan adierazitakoa, Aldundiaren ekarpen teorikoen guztizkoaz zatitzea.

**e) Aldundiaren oinarritzko ekarpena:**

Ekarpena izango da d) ataletik ateratzen den emaitza - Aldundiaren ekarpen teorikoa aurrekontura egokituta bider % 75, hitzarmena indarrean dagoen bitartean.

**f) Aldundiaren gehieneko ekarpena hobekuntzengatik:**

Aldundiaren aurrekontuaren arabera ekarpen teorikoaren eta Aldundiaren oinarritzko ekarpenaren arteko aldea da, eta zerbitzuaren eskaintzan hobekuntzak finantzatzeko erabiliko da.

Hobekuntzak direla eta, Aldundiaren gehieneko ekarpena udal mailan nahiz maila globalean egingo da (udalerrri guztien batukaria).

Hitzarmen honen I. eranskinean azaltzen dira hobekuntzen tipologia eta tipologia bakoitzari emandako ponderazioa.

Honela egiaztatuko dira:



Hobekuntzaren benetako aplikazioa ebaluatzeko erabili beharreko adierazleen formula kuantitatiboaren bidez; formula hori Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaian adostuko da, horretarako eraturako Jarraipen batzordeak proposatuta.

**g) Aldundiaren lehendabiziko ekarpen eraginkorra hobekuntzak direla-eta:**

Udalerrian egindako eta egiaztatutako hobekuntza bakoitzerako f) atalean zehaztutako kopurua biderkatuko da hobekuntzari emandako ponderazioarekin.

Udalerrri mailan, modu horretan kalkulaturako zenbateko guztien emaitza izango da Aldundiak egingo duen ekarpen eraginkorra lehendabiziko hobekuntzengatik.

Udalerrri guztien baturak zenbateko globala emango du.

Halaber, aipaturako zenbateko globalaren arabera udalerrri bakoitzari dagokion portzentaje bertikala kalkulatu da.

**h) Hobekuntza Fondoaren soberakina:**

f) eta g) ataletan kalkulaturako zenbateko globalen arteko diferentzia da. Soberakin osoa birbanatuko da udalerrien artean, g) atalean adierazitako portzentaje bertikalaren arabera.

**i) Aldundiaren bigarren ekarpen eraginkorra hobekuntzak direla-eta:**

g) eta h) ataletan kalkulaturako zenbatekoen batura da.

**j) Ateratzen den foru ekarpena:**

e) eta i) ataletan zehaztutako zenbatekoen batura da.

**ZAZPIGARREN.- Likidazioa.**

**a) Abonu sistema:**

Hiruhileko likidazio prozesua sinplifikatzeko xedez, honela egingo da Aldundiaren oinarritzko ekarpenaren eta bigarren hobekuntzak direla eta Aldundiak egingo duen ekarpen eraginkorraren konputua:

1.- Lehendabiziko hiru likidazioak, oinarritzko ekarpenaren arabera, erabat.

2.- Laugarren likidazioa, berriz, hobekuntzei dagokien ekarpenaren arabera, erabat.

Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru hilean behin ordainduko du, zortzigarren klausularen c) atalean jasotako hiruhileko naturala dagokion azken egunetik hasi eta hilabeteko epean, zerbitzuaren foru finantzaketarako aldagaiak, aurreko klausulan ezarritakoak, aplikatuzetik ateratzen den zenbatekoa.

**b) Likidazio aldia:**

Laugarren likidazioa osorik egiten denez hobekuntzengatik ekarpenaren arabera, eta horrek izapidetze-prozesu gehigarri bat eskatzen duenez, likidazio-aldia aurreko ekitaldiko azken hiruhileko naturala eta ekitaldi horretako lehenengo hiru hiruhilekoak hartuko ditu, honela:

1. Likidazioa: Urria, azaroa eta abendua.

2. Likidazioa: Urtarrila, otsaila eta martxoa.

3. Likidazioa: Apirila, maiatza eta ekaina.

4. Likidazioa: Uztaila, abuztua eta iraila.





Foru aurrekontu-ekitaldia ixteko epeak lehen likidazioa (urria, azaroa eta abendua) ordaintzeko epeak baino lehenagokoak badira, likidazio horren hiruhileko ordainketa konturako aurrerakintzat hartu ahal izango da.

Ordainketa horrela egin bada, egin beharreko hurrengo likidazioan dagozkion doikuntzak egingo dira, zenbateko teorikoko aldietan artatutako erabiltzaileen benetako kopuruaren arabera.

### **ZORTZIGARREN.- Informazio sistema.**

a) Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku jarriko ditu beharrezkoak diren datu guztiak, gutxienez jarraian aipatzen direnak: zerbitzuaren prezioa eta kostua, pertsona bakoitzeko xehetasuna zerbitzuaren ordu kopuruari dagokionez, erabiltzaileen koordainketa eta, behar bada, aplikagarri zaizkion hobekuntza motak. Hori guztia helburu hauekin:

1.- Zerbitzuari dagokion likidazioa egitea.

2.- Zerbitzuaren egoera ezagutzea gai hauen inguruan: mendekotasuna duten pertsonen emandako arreta eta, hala dagokionean, beste kolektibo batzuei emandakoa, hobekuntzen ezarpen eraginkorra, eta bete gabe egon daitezkeen beharrak.

3.- Arreta jaso duten mendeko pertsonen buruzko datuak ematea IMSERSOri, kontuan hartuta Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistemak definitutako espezifikazioak, araudiaren aipamen hauen bidez zehaztutakoak:

- SSI/2371/2013 Agindua, abenduaren 17koa, Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistema arautzen duena (BOE 302 zk., 2013/12/18, I. atala, 100.833 orrialdea).

- 1051/2013 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritako Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren prestazioak arautzen dituena (BOE, 313, 2013/12/31 I. 107128).

b) Gipuzkoako Foru Aldundiak tresna informatiko egokia eskainiko du, hau da, *Extranet SAD*.

Tresna horren erabilera eragotzi gabe, Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalaren eskura bertsio aurreratu bat jartzen duen neurrian, Udalak azken tresna hori erabiliko du.

b) Hauek dira informazioa bidaltzeko gehieneko epeak:

- a) lehen hiruhilekoa: apirilak 30
- b) bigarren hiruhilekoa: uztailak 31
- c) hirugarren hiruhilekoa: urriak 31
- d) laugarren hiruhilekoa: urtarrilak 31

d) Likidazio sistemak udalerrri guztiei dagokien informazioa izatea eskatzen duenez, epe hauek amaitu ondoren, informazio hori bidali ez duten udalei posta elektronikoz jakinaraziko zaie astebeteko epe luzaezina dutela eskatutako informazioa aurkezteko. Azken epe hori ez betetzeak hiruhilekoari dagokion likidazioa galtzea ekarriko du, eta





udalerria kanpoan utziko da kalkulu guztiak egiterakoan.

### **BEDERATZIGARREN.- Jarraipen batzordea.**

Jarraipen batzorde bat eratuko da, alderdi sinatzaileen arteko lankidetzarako bidea izango dena. Alde biek ordezkari-tza paritarioa izango dute.

Gehienez ere 12 hilabeteko epean eratu beharko da, hitzarmen honen indarraldiaren hasieratik zenbatzen hasita. Une horretarako, beren funtzionamendurako barne-arauak eta erabakiak hartzeko modua, alderdien ordezkariak, pertsona horiek beren gain hartutako karguak eta eginkizunak, eta deialdien forma eta maiztasuna ezarrita egon beharko dira. Alderdietako batek eskatzen duen guztietan bildu beharko dira, eta, edonola ere, urtean behin gutxienez.

Batzordeari esleitutako eginkizunak izango dira alderdiek hartutako konpromisoak betetzen direla zaintzea eta kontrolatzea, eta hitzarmen hau interpretatzean eta aplikatzean sortzen diren gai guztiak ebatzea.

Batzordeak hitzarmen honetan aurreikusitakoaren arabera funtzionatuko du, eta, osagarri gisa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren II. Kapituluaren Hirugarren Atalean xedatutakoaren arabera.

### **HAMARGARREN.- Hitzarmena amaitzeko eta iraungitzeko arrazoiak.**

Hitzarmen hau bere xede diren jarduketak betetzen direnean edo suntsiarazteko arrazoi hauetakoren bat gertatzen denean iraungiko da:

- a) Indarraldia amaitu eta indarraldia luzatzea erabaki ez bada.
- b) Alderdi sinatzaileek hala erabakitzea.
- c) Aldeetako batek hitzarmenari uko egiten badio; kasu horretan, hitzarmena suntsiarazteko aurreikusitako eguna baino gutxienez bi hilabete lehenago jakinarazi beharko dio beste alderdiari.
- d) Aldeek hitzarmenean aurreikusitako betebeharrak eta baldintzak ez betetzea.
- e) Deuseztasuna deklaritzen duen erabaki judizialagatik edo legeetan aurreikusitako beste edozein arrazoiengatik.

### **HAMAIKAGARREN.- Araubide juridikoa.**

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren VI. Kapituluaren xedatutakoaren arabera, eta ordenamendu juridiko administratiboak agintzen du hura interpretatu eta garatzeko, eta alderdiek berariaz onartzen dute administrazioarekiko auzien jurisdikzioa.

### **HAMABIGARREN.- Datuen babesa.**

Alderdi sinatzaileek konpromisoa hartzen dute Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta 15/1999 Lege Organikoa Datu Pertsonalak Babesteko erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan xedatutakoa betetzeko.



### **HAMAHIRUGARREN.- Aldaketa.**

Hitzarmen hau aldatzeko, sinatzaileen esanbidezko adostasuna beharko da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. g) artikulua arabera, dagokion aldaketa-gehigarriaren bidez, hura sinatzeko izapideari jarraituz.

### **HAMALAU GARREN.- Indarraldia.**

Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta ondorio ekonomikoak izango ditu, 2021eko urriaren 1etik aurrera, eta 2023ko abenduaren 31ra arte iraungo du. Hitzarmen hau berariaz luzatu ahal izango da, amaitzen denean, urte natural bateko aldietan, betiere luzatutako ekitaldirako aurrekontu-zuzkidura egokia eta nahikoa badago.

Hitzarmenaren eta luzapenen gehieneko iraupena lau urtekoa izango da, salbu eta epe luzeagoa aurreikusten bada arau bidez.

Hala ere, hitzarmena sinatzen duten alderdiek aho batez eta aurreko paragrafoan aurreikusitako epea amaitu baino lehen adostu ahal izango dute hitzarmena luzatzea, beste lau urtez gehienez, edo hitzarmena azkentzea.

### **KLAUSULA IRAGANKORRA.- Hitzarmenak jasotzeko gehieneko epea eta ondorioak lehen bi likidazioetan.**

Hitzarmena 2021eko azken hilabeteetan onartzea aurreikusten denez, litekeena da udalek eta mankomunitateek hitzarmenak onartu eta sinatzea hiruhileko bat baino gehiago atzeratzea. Horrelakorik gertatuz gero, hiru hileko ordainketa konturako aurrerakintzat hartu ahal izango da, gehienez ere bi likidaziotarako.

Dagokion Udalak / Mankomunitateak hitzarmena sinatu beharko du hirugarren likidazioa kalkulatzeko unea baino lehen.

**Hirugarrena.-** Hamalau garren klausulan jasotakoaren arabera, 2023ko abenduaren 31ean amaitu zitzaion indarraldia hitzarmen honi. Dena den, aipatu klausula horrek berak ematen duen aukera baliatuta, urte natural bateko luzapena onartzea erabaki zuen Tolosako Udalak 2023ko abenduaren 23an ospatutako Gobernu Batzordearen saioan:

*<<1. ONARTZEA ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN SINATUTAKO HITZARMENA LUZATZEKO PROPOSAMENA.*

#### *E R A B A K I D U*

*LEHENA.- Onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako proposamena, ondorena, hain zuzen: Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Tolosako Udalaren artean, etxeko etxeko*

*laguntza zerbitzua finantzatzekoa, beste urte betez luzatzea.*

*BIGARRENA.- Luzapen honen indarraldia finkatzea: 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte.*

*HIRUGARRENA.- Adostutako luzapena sinatzea, hitzarmenaren eranskin gisa. Eranskin horren edukia atxikituta doa.*



*LAUGARRENA.- Alkate-Lehendakariari ahalmena ematea akordio hau aurrera eramateko behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.*

*BOSTGARRENA.-- Kontuhartzaitza Departamentuari eta interesatuari jakinaraztea.*

*SEIGARRENA.- Akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, Gardentasun Atarian eta Tolosako Udalaren webgunean argitaratzea.*

**ERANSKINA**

...>>

**Laugarrena.-** Hitzarmena indarrean sartu zenetik emandako zerbitzua aztertuta, ondoko datuak eman dira:

2022: Emandako zerbitzu kopurua → 46.992,70 ordu  
Artatutako onuradun kopurua → 196 onuradun  
Zerbitzuaren kostua → 958.393,91€  
Ekarpenak:

Onuradunak (ordenantza fiskaletan tasa) → 136.430,74€

Gipuzkoako Foru Aldundia (hitzarmena betez) → 235.177,83€

2023: Emandako zerbitzu kopurua → 53.313,90 ordu  
Artatutako onuradun kopurua → 209 onuradun  
Zerbitzuaren kostua → 1.271.195,23 €  
Ekarpenak:

Onuradunak (ordenantza fiskaletan tasa) → 144.998,90 €

Gipuzkoako Foru Aldundia (hitzarmena betez) → 435.195,94 €

2024: (Urtarrila-urria)

Emandako zerbitzu kopurua → 40.631,50 ordu  
Artatutako onuradun kopurua → 207 onuradun  
Zerbitzuaren kostua → 981.452,79 €  
Ekarpenak:

Onuradunak (ordenantza fiskaletan tasa) → 161.572,81 €

Gipuzkoako Foru Aldundia (hitzarmena betez) → 212.133,29 € (irailera arteko

likidazioa)

**Bosgarrena.-** Etxez Etxeko Zerbitzua udal eskumeneko zerbitzua dela kontuan izanik, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako lankidetzak hitzarmen hori Tolosako Udalarentzat eta bere biztanleria osoarentzat guztiz onuragarria izan dela baloratzen da.

Zerbitzuan aldaketak ematea eta indartzea ahalbidetu du, alde batetik; eta beste alde batetik, Udalak zerbitzu indartu hori finantzatzeko laguntza esanguratsua jaso du.

Hain zuzen ere, hitzarmen honen harira zerbitzuaren azterketa sakona egin zen, eta Tolosako Udalak hautua egin zuen Aldundiak Gipuzkoan Etxez Etxeko Zerbitzua indartzeko eta homogeneizatzeko ahaleginarekin bat egiteko.

Gainera, hitzarmenaren baitan Aldundiaren eskutik jasotako ekarpen ekonomikoak lagundu egiten dio Tolosako Udalari zerbitzuaren finantzazioan. Azpimarratu behar da Gizarte Zerbitzuen legeak zehazten duela Udalaren eskumeneko zerbitzua dela Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua, eta ondorioz, zerbitzu horren kostuari ere maila horretan egin beharko



litzaioke aurre, onuradunek egin beharreko ekarpenekin osatuz obligazio hori. Dena den, hitzarmen honen ondorioz, urteko kostuaren %25 finantzatu du erakunde horrek, batzaz-beste, eta nabarmentzekoa da hitzarmen honek Udalari ekartzen dion onura ekonomikoa.

Aipatutako ondorio horiek direla eta, Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailaren iritziz Tolosako Udalaren interesekoa da hitzarmen honen indarraldia luzatzea.

- *Txosten juridikoan honakoa nabarmendu da:*

**LEHENENA.**- Prozedura honetan ondorengo **araudia** da aplikatu beharrekoa:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen (aurrerantzean 7/1985 Legea).
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena (aurrerantzean 2/2016 Legea).
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (aurrerantzean 39/2015 Legea).
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena (aurrerantzean 40/2015 Legea).
- 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa (aurrerantzean 12/2008 Legea).
- 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa (aurrerantzean 185/2015 Dekretua).
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzkoa (aurrerantzean 19/2013 Legea).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (aurrerantzean 3/2018 Lege Organikoa).

**BIGARRENA.**- 40/2015 Legearen 47.2 artikulua a) atalean jasotzen da Udal honek beste erakunde publikoekin hitzarmenak egiteko daukan eskumena:

*“2. Administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek eta unibertsitate publikoek sinatzen dituzten hitzarmenak honako mota hauetariko batekoak izango dira:*

**a) Administrazio publiko biren edo gehiagoren artean sinatutako administrazio arteko hitzarmenak**, edo administrazio publiko diferenteei lotutako edo haien mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate biren edo gehiagoren artean sinatutakoak. Hitzarmen horien barnean bildu ahalko da beste administrazio publiko baten edo lotutako edo mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate baten bitarteko, zerbitzu eta baliabideak erabiltzea, eskumen propioak edo delegatuak baliatzeko.



*Salbuetsita geratzen dira autonomia-erkidego bik edo gehiagok zerbitzu propioak kudeatu eta emateko euren artean sinatzen dituzten administrazio arteko hitzarmenak, autonomia bakoitzaren estatutuak xedatzen duena izango baitute arau hipotesi, betekizun eta baldintzei dagokienez”.*

Gauza bera xedatzen du 2/2016 Legearen 100.1 artikulua ere:

*“1.– Toki-erakundeek lankidetzeta-hitzarmenak egin ahal izango dituzte bai beraien artean bai gainerako administrazioekin, kudeaketa publiko efizienteagoa lortzeko eta administrazio-bikoiztasunak ekidin edo ezabatzeko”.*

Konkretuki kasu honetan, aurrez sinatutako hitzarmenaren **luzapenaz** ari gara, puntu hau 40/2015 Legearen 49.h.2) artikuluan jasota:

*“h) Hitzarmenaren indarraldia, honako erregelak hauek kontuan hartuta:*

*1.a Hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.*

*2.a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea”.*

Kasu honetan, hasierako 4 urteko iraupenera iristeko azken luzapena onartzen ari gara.

**HIRUGARRENA.-** Hitzarmenei dagokienean zentratuz, 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren VI. Kapituluaren aurki dezakegu euren definizioa, 47.1 artikuluan hain zuzen:

*“1. Hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta **zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera”.***

Hala, hitzarmen honen xedea izango da aurrez Gipuzkoako Foru Aldundiarekin ezarritako lankidetzeta-esparruarekin jarraitzea, etxez etxeko laguntzaren eremuan hain zuzen ere.

Lankidetzeta-hitzarmen honen funts izango da 2/2016 Legearen 17.1. artikuluan jasotako Udalaren eskumen hau:

*“1.– Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak:*

*13) Gizarte-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea”.*

Honekin loturik doa, hain zuzen, Hitzarmenak lortu nahi duen xedea, 12/2008 Legearen 22.1.2. artikulua etxez etxeko laguntza-zerbitzua lehen mailako arretaren barruan



sartzen baitu. Gainera, Lege bereko 42.4 artikulua Udalen eskumen bezala sailkatzen ditu lehen mailako arretakoak:

*“4.– Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak eskaintzea, telelaguntza-zerbitzua izan ezik, Eusko Jaurlaritzaren eskumenpekoa da-eta. Lehen arretako gizarte-zerbitzu horiek 22. artikuluko 1. paragrafoan daude arauturik”.*

**LAUGARRENA.-** Hitzarmenak bete beharreko baldintzak 40/2015 Legearen 48. artikuluan aurreikusten dira. Kasu honetan, ondorengoak dira aipagarrienak:

*“3. **Hitzarmenak sinatuz kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezzen lagundu, eta aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako legeria bete.***

*8. Alderdiek adostasuna eman ez burutzen dira hitzarmenak”.*

Lege bereko 49. artikuluan izendatzen da hitzarmenek izan beharreko gutxieneko edukia:

LEGEZKOTASUNA BETETZEA	BAI/EZ	OHARRA
a) Hitzarmena sinatzen duten subjektuak, eta alderdietako bakoitzaren gaitasun juridikoa.	BAI	
b) Zer eskumenetan oinarritzen den administrazio publikoaren jarduera.	BAI	
c) Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak hura betetzeko egin beharreko jarduerak.	BAI	
d) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak, halakorik badago.	BAI	
e) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoen ez betetzeari aplikatu beharreko ondorioak.	BAI	
f) Jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoak.	BAI	
g) Hitzarmena aldatzeko araubidea.	BAI	
h) Hitzarmenaren indarraldia.	BAI	



**BOSGARRENA.**- 19/2013 Legearen 8.1 artikulua b) atalean jasotzen denari jarriki, Hitzarmena argitaratu egin beharko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan:

*“1. Titulu honen aplikazio-eremuan aipatzen diren subjektuek ekonomian edo aurrekontuan eragina duten administrazio-kudeaketako egintza hauei buruzko informazioa argitaratu beharko dute, gutxienez:*

*b) Sinatutako hitzarmenen zerrenda, honako hauek adierazita: sinatzaileak, xedea, iraupena, aldaketak, prestazioak emateko obligazioa dutenak eta adostutako obligazio ekonomikoak –baldin badaude–”.*

**SEIGARRENA.**- 7/1985 Legearen 21.1 artikulua dioenaren arabera, hitzarmen hau onartzeko eskumena Alkatearena izango da:

*“s) Legeek berriaz aitortzen dizkioten gainerakoak, eta Estatuko legediak edota autonomia erkidegoetako udalerriri esleitutakoak izanik udaleko beste organo batzuei egotzi ez dizkietenak”.*

Hala ere, 2023ko uztailaren 3ko 2023-1707 Alkatetza Dekretuak, lankidetzahitzarmenak sinatzeko eskumena Tokiko Gobernu Batzarrari ematen dio, betiere 9/2017 eta 38/2003 Legeen aplikazio-eremutik kanpo gelditzen bada:

*“5. Lankidetzahitzarmenak:*

*Beste administrazioekin edo pertsona fisiko eta juridikoekin lankidetzahitzarmenak onartzea, ondoko legeen aplikazio-eremutik kanpo geratzen direnak: 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituena, 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzei buruzkoa, eta horiek garatzeko arauak”.*

Hartara, eta aurreko bi arauetan esandakoa kontuan izanik, **Tokiko Gobernu Batzarrari** dagokio hitzarmen hau onartzeko eskumena.

Aurreko guztia aintzat harturik, hona hemen nire

## PROPOSAMENA

**LEHENA.**- Tolosako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko Hitzarmenaren luzapena sinatzearen aldeko txostena egitea, betiere txosten juridiko honetan zein txosten teknikoan zehaztutako baldintzak betetzearen menpe.

**BIGARRENA.**- Tokiko Gobernu Batzarrari aipatutako hitzarmenaren luzapena onartzeko, hasierako hitzarmenaren eranskin bezala onartzeko eta hura egikaritzeko ebazpen proposamena egitea.





**HIRUGARRENA.-** Hitzarmenaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea, 19/2013 Legearen 8.1 artikulua b) atalean xedaturikoarekin bat.

**LAUGARRENA.-** Erabaki hau Kontuhartzailtza eta Diruzaintza, eta Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailei jakinaraztea.

- Kontuhartzailtza txostenean honakoa nabarmendu da:

Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako proposamenaren arabera, hitzarmenaren gainerako klausula eta xedapen guztiak indarrean eta aplikagarri jarraitzen dute. Horien artean, Aldundiak eta udalak hartutako konpromiso ekonomikoak.

#### 1.-Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartutako konpromiso ekonomikoak

Hitzarmenaren hirugarren klausularen arabera, urteko gehieneko foru finantzazioa 2019. urtearen berdina jarraitzen du izaten.

Foru finantzaketa zehazteko erabiliko den ordu bakoitzeko gehieneko tarifak ere ez dira aldatu 2019tik, eta ondorengo hauek dira:

Ordu bakoitzeko asteguneko tarifa: 18,87 €

Ordu bakoitzeko igande eta jaiegunetarako tarifa: 22,66 €

#### 2.-Udalak bere gain hartutako konpromisoak

Hitzarmenaren laugarren klausularen arabera, udalerrri bakoitzean foru finantzaketa gainditzen duen gastua udalak hartuko du bere gain.

Zerbitzuaren prezioak, 2019an eta 2023ean sinatutako kontratuetan zein 2025eko otsailaren 1ean sinatutako den kontratuan ondorengo hauek dira:

Prezioak	2019	2023	2025
lanegunak	20,17	24,08	30,20
jaiegunak	25,52	31,04	39,32

2023an sinatutako kontratuak 42.500 lanegun ordu eta 1.500 jaieguneko orduak aurreikusi zituen. Dena den, benetan ematen ziren orduak kontutan hartzen baditugu, lanegun orduan, urtero 53.000 ingurukoak ziren, eta jaiegunekoak 500ekoak.

2025eko otsailaren 1ean sinatuko den kontratuak 54.000 lanegun ordu eta 1.000 jaiegun ordu aurreikusi ditu.





Hauen arabera, **udalak bere gain hartzen duen konpromisoa 348.160,00 euro urteko igoko litzateke** 2023an hartutako konpromisoarekin konparatzen badugu, ondorengo taulan ikusten den moduan:

Udalaren konpromi- soa	2019	2023	2025
Ianegunak	55.250,00	276.130,00	611.820,00
jaiegunak	4.290,00	4.190,00	16.660,00
	<b>59.540,00</b>	<b>280.320,00</b>	<b>628.480,00</b>

### C) ONDORIOAK

Hitzarmenaren luzapenak ezartzen duen finantza-egokitzapenerako mekanismoak ez du aldundiaren konpromiso ekonomikoa aldatzen, baina **nabarmen handitzen du udalak hartzen duen konpromisoa**, berak hartzen baitu bere gain zerbitzuaren gastuaren igoera osoa.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### ERABAKI DU

**Lehena-** Onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako ondorengo proposamena: Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Tolosako Udalaren artean lankidetzat hitzarmena beste bederatzita hilabetez luzatzea, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua finantziatzeko.

**Bigarrena-** Luzapen honen indarraldia finkatzea: 2025eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era bitarte.

**Hirugarrena-** Adostutako luzapena sinatzea, hitzarmenaren eranskin gisa, jarraian erantsi den ereduari jarraituz.

**Laugarrena-** Alkate-Lehendakariari ahalmena ematea akordio hau aurrera eramateko behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.

**Bosgarrena-** Hitzarmenaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea, 19/2013 Legearen 8.1 artikuluan b) atalean xedaturikoarekin bat.



**ERANSKINA, ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO GIPUZKO-  
AKO FORU ALDUNDIAREN ETA XXXXKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA LUZA-  
TZEKOA.**

**ERANSKINA, ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA  
FINANTZATZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA  
XXXXKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENAREN ONDORIO  
EKONOMIKOAK ZABALTZEKO ETA HASIERAKO  
INDARRALDIARI AMAIERA EMATEKOA.**

**ADENDA DE EXTENSIÓN DE EFECTOS ECONÓMICOS Y  
FINALIZACIÓN DE LA VIGENCIA INICIAL DEL CONVENIO DE  
COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE  
GIPUZKOA Y EL AYUNTAMIENTO DE XXXX PARA LA  
FINANCIACIÓN DEL SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO.**

Sinadura elektronikoaren tokian eta egunean.  
En el lugar de la firma electrónica.

**ELKARTU DIRA**

**REUNIDOS**

Alde batetik,

De una parte,

MAITE PEÑA LÓPEZ Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta  
Gizarte Politiketako foru diputatua eta Aldundiaren ordezkaria,  
Diputatuen Kontseiluak 2024ko abenduaren 10ean egindako  
bileran hartutako erabakiaren bidez egintza honetarako berariaz  
baimenduta.

Doña MAITE PEÑA LÓPEZ en calidad de Diputada Foral del  
Departamento de Cuidados y Políticas Sociales de la Diputación  
Foral de Gipuzkoa y en su representación, expresamente  
autorizada para este acto por acuerdo del Consejo de Gobierno  
Foral de 10 de diciembre de 2024.

Eta bestetik,

Y de otra parte,

.....NORK..... Udaleko  
...KARGUA..... eta ordezkaria, 2024ko ...DATA...ren  
.....ko Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren bidez egintza  
honetarako berariaz baimenduta.

...QUIÉN..... en calidad de ...CARGO... del Ayuntamiento de  
..... y en su representación, expresamente autorizado/a  
para este acto por acuerdo Plenario Municipal de ...FECHA.....  
de ..... de 2024.

**AZALTZEN DUTE**

**EXPONEN**

I.- Aldeek..... (e) ko..... aren.... (e) (a) n sinatu zuten  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta xxxx (e) ko Udalaren arteko  
lankidetzaz-hitzarmena, etxez etxe laguntza-zerbitzua  
finantzatzeko.

I.- Que las partes firmaron el ... de ..... de ..... el convenio de  
colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el  
Ayuntamiento de xxxx para la financiación del servicio de ayuda  
a domicilio.

II.- Hitzarmenaren hamalagarren klausulak hitzarmenaren  
indarraldia ezartzen du, eta adierazten du gehienez lau urtekoa  
izango dela. Nolanahi ere, hitzarmena sinatu duten alderdiek aho  
batez eta hura amaitu baino lehen adostu ahal izango dute lau urte  
gehiagoz luzatzea edo azkentzea.

II.- Que la cláusula decimocuarta del convenio establece la  
vigencia del mismo, señalando que no podrá ser superior a cuatro  
años, sin perjuicio de que las partes firmantes del convenio podrán  
acordar unánimemente y antes de la finalización de dicho plazo,  
su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales o su  
extinción.

III.- Hitzarmenaren hamalagarren klausulan xedatutakoaren  
arabera aldeek hitzarmenaren ondorio ekonomikoak urte natural  
batez zabaltzea adostu zuten, 2024ko urtarrilaren 1etik  
abenduaren 31ra.

III.- Que en base a lo dispuesto en la cláusula decimocuarta del  
convenio las partes acordaron extender los efectos económicos  
del convenio por un año natural desde el 1 de enero al 31 de  
diciembre de 2024.

ESKUDA512ee9-0675-469f-86bd-92333a019d4cd

Kontuan izanda hitzarmenaren hasierako gehieneko iraupena lau urtekoa izango dela, 2025eko irailaren 30ean amaituko da hasierako indarraldia.

Habida cuenta de que la duración inicial del convenio no podrá ser superior a cuatro años, el plazo de vigencia inicial vence el 30 de septiembre de 2025.

Aurrekoa oinarri hartuta, bi alderdiek adostu dute eranskin hau formalizatzea, honako klausula hauen arabera:

Con base a lo anterior, ambas partes han convenido la formalización de la presente adenda de acuerdo con las siguientes

#### KLAUSULAK

#### CLÁUSULAS

##### LEHENA.- Helburua.

Hitzarmenaren ondorio ekonomikoak bederatzi hilabetez zabaltzea erabaki da, 2025eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era. Horrela, aurreikusitako lau urteko gehieneko hasierako indarraldia beteko da.

##### PRIMERA.- Objeto.

Se acuerda extender por nueve meses los efectos económicos del convenio, desde el 1 de enero hasta el 30 de septiembre de 2025. Así, se cumplen los cuatro años de vigencia máxima inicial prevista.

##### BIGARRENA.- Hitzarmenaren gainerako zatiek irautea.

Dokumentu honetan aurreikusi ez den guztian, hitzarmenaren gainerako klausula eta xedapen guztiek indarrean eta aplikagarri jarraituko dute, eta horiek ere aplikatuko dira dokumentu honi beharrezkoa zaion guztian.

##### SEGUNDA.- Subsistencia del resto del convenio.

En todo lo no previsto en el presente documento seguirán plenamente vigentes y aplicables todas las demás cláusulas y disposiciones del convenio, siendo las mismas igualmente de aplicación en cuanto fuere necesario al presente documento.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela erakusteko, dokumentu hau elektronikoki sinatzen dute, sinadura elektronikoaren tokian eta egunean.

Y en prueba de conformidad con cuanto antecede, se firma electrónicamente el presente documento, en el lugar y fecha de la firma electrónica.

XXXXXX UDALA / MANKOMUNITATEA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

XXXXXX XXXXXXXX XXXXXXXX

MAITE PEÑA LÓPEZ

Tolosan, 2024ko abenduaren 19an.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 13:45ean.**

ALKATEA

IDAZKARI AKZIDENTALA



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024IGBA0031-2024/12/23ko Gobernu Batzarraren akta/2024/12/23ko Gobernu